

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Atal honetan gure produktua nori zuzenduta dagoen azalduko dugu. Produktu hau sortu dugu zaratak eragiten dituen eragozpenetan pentsatuz. Gainera, denok amestu dugu noizbait ile-lehorgailu isil bat genuela. Horregatik, gure produktua antzeko beharrak noizbait eduki dituzten bezero talde zabal bati zuzenduta dago.

Gaur egun normalena da jendea beste pertsona batzuekin bizitzea, adibidez: familiarekin, mutil-lagunarekin edo neska-lagunarekin, lagunekin... Ile-lehorgailu normalak egiten duen zaratak etxeko lasaitasuna oztopatu dezake, baita ere besteek lo dauden bitartean esna ditzazke.



Bestetik, aiton-amonek edo entzumen-aparatuak erabiltzen dituzten pertsonen zarata oso altuak kalte egin diezaiekete. Gure ile-lehorgailu isilaren bidez, zarata hori bakea bihurtzen dugu isiltasunaren bitartez.

Badago jendea musika entzuten dutenak dutxatzen ari diren bitartean, eta dutxatu ondoren ilea lehortu nahi dutenak, baina ile-lehorgailu "normal"-ak egiten duen zarataregatik ezin dutenak. Baina gurearekin musika entzuteko, hitz egiteko... aukera daukazu.

Baita daude ile asko eta luzea duten pertsonak, denbora luzez ilea lehortzen egon behar direnak eta buruko minaren bukatzen dutenak. Gure ile-lehorgailu isilarekin errazagoa eta erosoagoa izango da ilea lehortzea.



Ile-apaindegietan arazo berdina dago. Normalean, ordu berdinean, pertsona bat baino gehiago dago, eta ilea aldi berean lehortzen egon daitezke, zarata hori oso desatsegina da. Gure produktuak, lan giro

atseginagoa egiten du, langileen eta bezeroen esperientzia hobetzen.

Laburbilduz, pertsona desberdinek erabiliko dute gure produktua eta bakoitzaren arrazoia ezberdina da, baina denoi asko eta modu eroso batean lagunduko die.